

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MOREDA ARABAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea eguneko arretarako landa zentroa erabiltzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen zerga ordenantzari

Udalbatzak, 2021eko uztailaren 23an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onespena ematea eguneko arretarako landa zentroa erabiltzeagatiko prezio publikoak ezartzeari eta horiek arautzen dituen zerga ordenantzari.

Aldaketa horiek jendaurrean erakusgai jarri ziren 2021eko abuztuaren 6an, ALHAOren 88. zenbakian, argitaratu zen iragarkiaren bidez eta udaletxeko iragarki taulan jarritako iragarkia-
ren bidez, eta ez da erreklamaziorik edo iradokizunik bat ere aurkeztu, eta, beraz, behin betiko onetsita geratzen da.

Bat etorri Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artiku-
luan xedatutakoarekin, aldaketa horren testu osoa ematen da argitara, lege ondorio guztieta-
rako, eta bereziki indarrean jartzeko.

Ordenantza aldatzen duen erabakiaren aurka, aipatutako foru arauaren 18. artikulua ar-
bera, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio horren gaineko
arauetan ezarritako moduan eta epean.

MOREDA ARABAKO UDALAREN ZERGA ORDENANTZA, EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROAREN ZERBITZUARI BURUZKOA

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da arautzea eguneko arretarako landa zentroaren prezio publikoen
aplikazioa, hain zuzen ere:

- Zerbitzuaren erabiltzaileak prezio publikoan duen parte hartze ekonomikoa ezartzeko irizpideak.
- Sortzapenean eta ordainketan aplikatuko diren irizpideak.
- Prezio publikoak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa zehazteko irizpideak.
- Prezio publikoen zenbatekoak, bai eta erabiltzaileen ahalmen ekonomikoaren arabera aplikatuko diren hobariak ere.

2. artikulua. Eremua

Zerga ordenantza hau eguneko arretarako landa zentroari aplikatuko zaio, bai zuzenean kudeatzen bada, bai beste erakunde publiko batzuekin egindako hitzarmenen bitartez kudeatzen bada, bai erakunde pribatuekin sinatutako itunen, hitzarmenen edo kontratuen bitartez kudeatzen bada.

3. artikulua. Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

1. Hauek ordaindu behar dituzte prezio publikoak:

- a) Eguneko arretarako landa zentroa zuzenean erabiltzen duten pertsona fisikoak, baldin eta 1. apartatu honen b) letran aipatutako egoeran ez badaude.

b) Erabiltzaile helduek legezko ordezkari edo egitatezko zaintzaile baten bitartez jarduten badute, zerbitzua jasotzeko araudian aurreikusitako moduan, ordezkari edo zaintzaile horrek ordaindu behar du zerbitzua. Dena den, kasu horietan, ordainketa ordezkaturako pertsonaren errentan edo ondarean zordunduko da, eta aintzat hartutako ahalmen ekonomikoa pertsona ordezkatuarena izango da.

2. Hala badagokio, prezio publikoa modu subsidiarioan ordaindu beharko dute honako pertsona hauek egindako doako eskualdaketa jaso duten pertsonak: erabiltzaileak; edo 60 urte-tik aurrera edo zerbitzua jasotzeko lehenengo eskaera egin aurretiko 10 urtean erabiltzailearen ezkontidea izan denak edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman baten bidez erabiltzailearekin lotuta egon den pertsonak (zerga ordenantza honen lehen xedapen gehigarrian harreman hori zehaztu den baldintzetan).

Ordaindu beharrak muga bat dauka ondasun higiezinatarako: merkatuko balioa, zorra eskatzen den unean eguneratua.

Gainerako ondasunen dohaintzetan, ordaintzeko betebeharra dohaintza datan eskualdaketak duen balioraino iritsiko da, dagokion KPIaren arabera eguneratuta.

Era berean, erabiltzailearen ondare guztia edo horren zati bat bahitu badute abal emaile, hipoteka bermatzaile edo antzeko gisa sinatu duelako hirugarren baten alde, hirugarren horrek ordaindu beharko du prezio publikoa. Ordaintzeko betebeharra abal, hipoteka edo antzekoaren eraketa eskritoretan edo, halakorik ezean, enbargo eskritoretan esleitutako tasazio baliorainokoa izango da.

I. titulua: Erabiltzailearen parte hartze ekonomikoa

4. artikulua. Prezio publiko osoa ordaintzea

1. Zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak dagokien prezio publiko osoa ordainduko dute, baldin eta behar besteko ahalmen ekonomikoa badute, eta, edonola ere, prezio hori ordaintzeko beharrezko bermeak egitea eskatu ahal izango zaie.

2. 1. apartatuan ezarritakoa betetzeko, zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak behar besteko ahalmen ekonomikoa dutela joko da kasu honetan: ahalmen ekonomikoa, zerga ordenantza honen III. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera zenbatua, II. eranskinean zehaztutako mugak bezain handia edo horiek baino handiagoa bada, zerbitzu mota kontuan hartuta.

3. Prezio publikoa zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan arabera ordaindu behar duten pertsonen ahalmen ekonomikoa artikuluan honen 2. apartatuan ezarritako mugen azpitik badago, 3.2 artikuluan arabera prezio publikoa ordaintzeko betebeharrak subsidiarioa duten pertsonengana joko da, erabiltzaileak egindako ekarpena osatzeko, harik eta prezio publikoaren zenbatekoa osorik estali arte, edo prezio publikoa osorik ordaintzeko, baldin eta prezio publikoa 3.1 artikuluan arabera ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren ahalmen ekonomikoak ekarpenik egiteko aukerarik ematen ez badio.

5. artikulua. Hobariak

1. 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikorik ez badute, II. eranskinean ezarritako mugaren azpitik daudelako, dagozkien prezio publikoetan hobariak jaso ahal izango dituzte.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren prezio publikoen hobariak gehikortasun printzipioaren arabera aplikatuko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta. Erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa zerga ordenantza honen III. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera zenbatuko da.

3. Artikulu honetan ezarritako hobariak zerga ordenantza honen III. eranskinean finkatu dira, eta I. eranskinean finkatutako prezio publikoak indarrean badaude aplikatuko dira. Prezio horiek 16. artikuluan ezarri den moduan eguneratzen edo aldatzen baldin badira, dagozkien hobariak ere zehaztu beharko dira.

6. artikulua. Salbuespen partzialak, erabilera motaren arabera

1. Eguneko arretarako landa zentroko erabiltzaileek, gizarte eta familia harremanak hobeto batera ditzaten, bost eguneko aldietan edo epe luzeagoetan zerbitzua erabiltzen ez badute (betiere egun horietan zerbitzua funtzionamenduan badago), urtean gehienez ere 45 egunetan, lekua gordetzeko zenbateko gisa, norberari esleitutako prezio publikoaren ehuneko 60 aplikatuko zaie epe horietan. Gizarteratzea edo familiaratzea dela eta urtean 45 egun baino gehiago huts eginez gero, salbuespen partziala bertan behera geratuko da eta 46. egunetik aurrera prezio osoa ordaindu beharko da atzera ere.

2. Ez da aplikatuko inolako salbuespen partzialik prezio publikoaren ordainketan ospitaleratzeagatik, eta, beraz, ez da etengo prezio publikoaren sortzapena. Aurrekoa horrela bada ere, ospitaleratzeak ondoz ondoko 7 egun edo gehiago irauten badu, erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa ehuneko 90 izango da, ospitaleratzealdiaren lehen egunetik aldi hori amaitu arte, salbu eta aldi horrek zerbitzuan sartzeko araudian aurreikusitako etenaldiaren gehieneko iraupena gaingitzen badu. Muga hori gaingituz gero, ospitaleratu aurretik erabiltzen zuen zerbitzuaren erabiltzailea izateari utziko dio.

3. Ez da prezio publikoaren ordainketaren salbuespen partzialik aplikatuko, baldin eta eskatutako informazioa emateko eta dokumentazioa aurkezteko betebeharra berandu betetzeagatik edo prezio publikoa behin eta berriz ez ordaintzeagatik eteten bada zerbitzua, zerbitzua emateari buruzko araudiarekin bat etorriz.

7. artikulua. Erabilera libreko zenbatekoa

Erabilera libreko zenbatekoa bermatuko du zerbitzu mota bakoitzari dagozkion hobariak zehazteko erabilitako formulak (hobariak zerga ordenantza honen III. eranskinean ezarri dira).

II. titulua. Sortzapena eta ordainketa

8. artikulua. Sortzapena

Araudi honetan arautu den prezio publikoa ordaintzeko betebeharra sortuko da zerbitzua eraginkortasunez hasten den egunean, eta egun horretatik zerbitzua erabiltzen behin betiko amaitzen den unera arte iraungo du betebeharrak horrek.

9. artikulua. Ordainketa

Zerbitzu batengatik ezarritako prezio publikoa (zenbateko osoa, hobaria aplikatu ondoko zenbatekoa zein salbuespen partziala daukana) ordainagiria kobratzeko aurkezten denean ordainduko da, bankuan helbideratuta.

III. titulua. Kudeaketa eta likidazio arauak

I. kapitulua. Ahalmen ekonomikoa zehaztea

10. artikulua. Ahalmen ekonomikoaren osagaiak

1. Zerga ordenantza honen 3.1 artikulua arabera zerbitzua ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoa kalkulatu behar da, prezio publikoan egingo duen ekarpena zehazteko; horretarako, familia unitatearen urteko errenta eta ondarea zenbatu beharko dira, eta kapitulu honetan ezarritako balioespen irizpideak aplikatu.

2. Ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, honako hauek erabiliko dira:

a) Erabilgarri dauden azken zerga datuak, betiere, datu horiek aldatu dituen geroagoko gertaera garrantzitsu bat izan ezean. Horrelako kasuetan, datu eguneratuenak erabiliko dira.

b) Hiri ondasun edo landa ondasunei dagokienez, katastroko balioaren arabera zenbatuko dira, erabilgarri dauden azken zerga datuak erabiliz, betiere ondasunok daudeneko autonomia erkidegoak edo lurralde historikoak ondasun higiezinak balioesteko berariaz darabilen araudiaren arabera eguneratuta.

c) Edozein eratako ondasunen dohaintzak edo haien gaineko eskubideei uko egiteak dohaintza datan duten eskualdatze balioaren arabera balioetsiko dira, dagokion KPlaren arabera eguneratuta.

11. artikulua. Errenta

1) Aurreko artikuluan ezarritako ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, errenta edo sarrera konputagarritzat joko dira familia unitateak urtean dauzkan lanaren ziozko etekinak eta eskubi-deak, honako hauetatik eratortzen badira:

a) Funts publikoetan edo pribatuetan zorduntzeko pentsioak edo prestazio ekonomikoak (jasotzen diren diru sarrera gordinak zenbatuko dira). Horretarako, sailkapen horren barnean hartuko dira pentsioak, sorospenak, prestazio ekonomikoak eta beste edozein eskubide ekonomiko, zerbitzuaren erabilzaileak eskubide horiek sortu baditu, artikulua honen 2. apartatuan ezarritako prestazioak izan ezik.

b) Norberaren edo besteren kontura lan egiteagatik lortutako etekin osoak.

2) Honako prestazio hauek ez dira zenbatuko, errenta zehazteko:

a) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko azaroaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako prestazio ekonomiko finalistak, besteak beste, hauek: familiakoek eskainitako zaintzarako eta profesionalak ez diren zaintzaileentzako prestazio ekonomikoak, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak eta zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoak.

b) Honako prestazio hauek aurreko a) letran ezarritako prestazioen antzeko xede eta ezau-garriak dituzte:

– Baliaezintasun handiagatiko osagarria, zeina arautzen baitute Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onesten duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 194. artikulua eta hurrengoak.

– Desgaitasun maila ehuneko 75ekoa edo handiagoa daukan 18 urtetik gorako seme-alabaren baten ardura dutenentzako prestazio ekonomikoaren osagarria, zeina jasotzen baitu Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onesten duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 353.c) artikulua.

– Kotizaziopekoa ez den baliaezintasun pentsioaren osagarria, beste pertsona baten beharra edukitzearen ziozkoa, zeina aurreikusten baitu Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onesten duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 364. artikulua. Gizarte Segurantzaren arloko Berariazko Xedapenen abenduaren 10eko 52/2003 Legeak aldatu zuen legegintzako errege dekretu hori.

– Hirugarren pertsona baten laguntzarengatiko sorospena, zeina arautzen baitu Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2 c) artikulua, eta zeina mantentzen baitu Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haiek Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testuategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, legegintzako errege dekretu hori indarrean jarri baino lehenagotik hura jasotzen duten eta dekretu horren xedapen iragankor bakarrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat.

3) Errenta balioztatzeko, erreferentziatzat hartuko da Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ematen duen informazioa, 21.3 artikuluan aipatu diren zerga datuak oinarri hartuta. Diru sarreratzat zenbatuko dira honako kontzeptu hauen batuketak:

– Lanaren etekin osoak.

– Lanbide jardueren, enpresa jardueren eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren etekin osoak.

– Egotzitako lan errenta salbuetsiak, guztira.

Artikulu honetako 2. apartatuan azaldutako errentaren bat jasotzen dutenek prestazio ekonomiko horien frogagiria aurkeztu behar dute salbuetsitako zenbatekoa kalkulatzeko, zenbaki horretan ezarritako ondorioetarako.

4) Hileko errenta kalkulatzeko, urteko errenta zati hamabi egingo da.

12. artikulua. Ondarea

1. 10. artikuluan ezarritakoa betetzeko, ondareztat hartuko dira honako hauek:

– Familia unitatea osatzen duten pertsonak osorik edo zati batean jabetzan dituzten eduki ekonomikoko ondasunak eta eskubideak, eskuragarri dauden azken zerga datuak oinarritzat hartuta eta finantza aktiboen inguruan eskatzen den informazioaren bidez osatuta, salbu eta 21. artikulua 3. apartatuan xedatutakoa.

– Ekitaldi batean edo gehiagotan sortu diren kalte ordain edo errenta kapitalizatuak.

– Erabiltzaileak, haren ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez harekin lotuta dagoen pertsonak –zerga ordenantza honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– edo ordaindu behar duen pertsonak doan eskualdatu dituen ondasunen eta eskubideen balioa, dohaintza datan duten eskualdatze balioaren arabera eta dagokion KPlaren arabera eguneratuta.

2. Honako hauek ez dira sartuko ondarean:

a) Ohiko etxebizitza, aparteko balioa eduki ezean (apartekotzat jotzen dira 250.000,00 eurotik gorako katastro balioak); etxebizitzaren balioa apartekoa bada, muga horren gaineko kopurua zenbatu behar da ondarean.

Ohiko etxebizitza ez da halakotzat hartuko, ohiko etxebizitza izandako horren jabea egoitza zentroan (edozein modalitate) edo landa eremuko ostatu zerbitzuan behin betiko hasten bada, familia unitateko kide batek edo batzuek han bizitzen jarraitu ezean (24. artikuluan zehaztu da familia unitatea).

Ondorio horietarako, ohiko etxebizitzat hartuko dira honako hauek: etxebizitza bera, garajea eta/edo trastelekua, bai eta, familia bakarreko landako edo hiriko etxebizitza bada, etxebizitzari atxikita dagoen lur zatia ere (bereizita egon ezean).

b) Ondasunak eta eskubideak kargatzen dituzten eta horien balioa gutxitzen duten kargak, ohiko etxebizitzat erabiltzen den higiezin eskuratzeko direnak izan ezik edo, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak onetsi ondoren, higiezin zaharberritzeko erabiltzen direnak. Karga konputagarri horiek guztiek ezin izango dute inola ere balio garbi negatiborik sortu.

c) Zor eta betebeharrak pertsonalak.

d) Azaroaren 18ko 41/2003 Legearekin bat etorritik (horren bidez, pertsona desgaituen ondarea babestu zen, eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga araudia aldatu ziren pertsona horien ondarea babesteko), babes berezia duen ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak, ondarearen jabeak berak zerbitzua jasotzen duenean izan ezik, pertsonaren beharrianak asetzen dituen heinean, bat etorritik aipatutako legeko 1.1 eta 5.4 artikuluetan xedatutakoarekin.

e) Jarduera ekonomiko bati loturik dauden landako edo hiriko higiezinak, baldin eta horietatik ateratako etekinak errenta kalkulatzeko zenbatzen badira, 22. artikulua ezarritako baldintzetan.

Ondarearen hileko zenbatekoa kalkulatzeko, urteko zenbatekoa zati hamabi egin behar da.

13. artikulua. Familia unitatea

1. Kapitulu honetan ezarritakoa betetzeko, honako hauek hartuko dira familia unitateko kideztat:

- Zerbitzuaren onuraduna bera.
- Onuradunaren ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harremanaren bitartez berarekin lotuta dagoen pertsona, legez aitortuta eta behar bezala kreditatuta, lehen xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan.
- Ondorengo adingabeak, betiere eskatzaileak guraso ahala badu eta haiek ekonomikoki mantentzen laguntzen badu, partzialki edo osorik.
- Ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duten 18 urtetik gorako seme-alabak, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira.
- Ikasketa akademiko arautuak egiten ari diren 18 eta 25 urte bitarteko ondorengoak, betiere eskatzaileak guraso ahala badu eta haiek ekonomikoki mantentzen laguntzen badu, partzialki edo osorik.

Ondorengo zaintza partekatuko kasuetan, seme-alabak zerbitzuaren eskatzailearen familia unitatean txertatuko dira. Bi gurasoek foru zerbitzua eskatzen badute, lehen ondorengoa mendekotasun maila handieneko eskatzailearen familia unitatean sartuko da; bigarren ondorengoa, mendekotasun maila txikiagoko eskatzailearen familia unitatean, eta horrela ondoz ondo, ondorengo kopuruaren arabera.

2. Edonola ere, pertsona bat familia unitate bakarreko kide baino ezin da izan.

14. artikulua. Ahalmen ekonomikoa balioesteko irizpideak

1. Ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, honako batura hau egin behar da: familiaren urteko errentari familiaren urteko ondarearen ehuneko jakin bat gehitu, eta ehuneko horiek aldatuko dira erabiltzailearen adina zein den. Hona hemen:

Erabiltzaileak 65 urte baino gehiago badauzka, bere ondarearen ehuneko 20. Nahiz eta 65 urte ez eduki, adinekoentzako zerbitzuetan edo zentroetan salbuespen moduan sartzen diren pertsonen ere aplikatuko zaie apartatu honetan ezarritakoa.

2. Prezio publikoa familia unitatearen ahalbide ekonomikoaren arabera zehazteko, honako irizpide zehatz hauek aplikatu beharko dira:

a) Pertsona bakarreko familia bada, ahalbide ekonomikoa 1. apartatuan azaldutakoa zuzenean aplikatuz zehaztuko da.

b) Familia unitatean bi pertsona badaude, prezio publikoa kalkulatzeko (osoa edo hobariduna), 1. apartatuan azaldutakoaren arabera kalkulaturako hileko guztirako ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80 hartuko da kontuan.

c) Familia unitatean bi pertsona baino gehiago badaude, b) letran azaldu den ehuneko 80ko kopuruari ehuneko 5 kenduko zaio gainerako pertsona bakoitzeko.

Hileko ahalbide ekonomikoa kalkulatzeko, urteko ahalbide ekonomikoa zati hamabi egingo da.

II. kapitulua: Ebazpena, berrikuspena eta eguneraketa

15. artikulua. Ebazpena

Organo eskumendunaren ebazpenean jasoko da zerbitzuaren prezio publiko osoa, eta hala badagokio, ahalmen ekonomikoaren araberrako prezio publiko hobariduna.

16. artikulua. Prezio publikoak ofizioz berrikustea eta informazioa eman beharra

1. Eguneko arretarako landa zentroa erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak –zenbateko osoa, hobaria aplikatu ondoko zenbatekoa, zein salbuespen partziala daukana–, banaka zein denak batera, ofizioz berrikusi ahal izango ditu organo eskumendunak, eta interesdunak, bere legezko ordezkariak edo egitatezko zainzaileak eskatuta ere berrikusi ahal izango dira. Berrikuspen baten ondorioz jakiten bada prezio publikoa ezartzerakoan kontuan hartutako ahalmen ekonomikoa aldatu dela, prezioaren zenbatekoa aldatu ahal izango da, dagokion ebazpenaren bidez.

2. Horren ondorioetarako, zerga ordenantza honek erreferentzia egiten dion prezio publikoa ordaintzera loturik dagoen edozein zerbitzuren erabiltzaileak –edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak edo egitatezko zainzaileak– jakinarazi beharko du, hogeita hamar eguneko epean gehienez ere, gorabeherarik izan den elkarbitzita egoeran, egoera zibilean, egoitzan, errenta edo ondare propioan edo inoren ondare konputagarrian eta erabiltzaileari esleitutako prezio publikoetan eragina izan dezaketean gainerako inguruabar guztietan.

3. Administrazio eskumendunak jakinez gero zerbitzu erabiltzaile baten ahalmen ekonomikoa aldatu dela eta ez dela horren berri eman aurreko apartatuan ezarri den bezala, ezarritako prezio publikoa berrikusiko du, eta inguruabar berrietara doituko du. Bi egoera gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa baldin bada, atzerako eraginez aplikatuko da, egoeran aldaketa hori gertatu zen egunetik aurrera eragina izateko, eta 3.1. artikulua arabera ordaintzeko betebeharra duen pertsonak, hartara, epe horretan pilatu diren ordainkizun atzeratuak ere ordaindu beharko ditu.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, ez da aplikatuko atzerako eraginez.

4. Ahalmen ekonomikoaren aldaketaren berri eman bazaio administrazioari, eta, administrazio horri lepora dakizkion arrazoiengatik, prezio publikoa 2 hilabeteko epean berrikusi ez bada, honako bi egoera hauek gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa baldin bada, ez da aplikatuko atzerako eraginez.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, administrazioak bidegabe ordaindu diren zenbatekoak itzuliko ditu.

17. artikulua. Prezio publikoak eguneratzea

Zerga ordenantza honetan ezarritako prezio publikoak ordenantza bidez eguneratu behar dira, eta ordenantza horretan ezarri behar dira, halaber, aplikatu beharreko hobariak eta behar besteko ahalmen ekonomikoa.

III. kapitulua: Prezio publikoengatik sortutako zorrak

18. artikulua. Prezio publikoengatik sortutako zorrak

1. Zerbitzuak sortutako prezio publikoaren ordainagiria –prezio osoa edo prezio hobari-duna– itzultzen badu bankuak, zordunari ordaintzeko eskatuko zaio, eta 30 egun naturaleko epea emango zaio zor duen zenbatekoa ordaintzeko edo ordainketa zatitzeko eskaera egiteko.

2. Aurreko puntuan aipatzen den epean eskatutako dirua ordaindu edo ordainketa zatitzeko eskatu ezean, 1. apartatuan ezarritako prezio publikoa premiamenduko administrazio prozedura bidez eskatuko da.

3. Ez bada ordaintzen ordaindu beharreko prezio publikoa, eta hori behin eta berriz egiten bada, zerbitzua eskuratzeko eskubidea eten ahal izango da.

4. Baldin eta, zerbitzua eskuratzeko prozeduraren esparruan, egiaztatzen bada zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan jasorikoaren arabera prezio publikoa ordaintzera behartutako pertsonak lehenago ere zorrak dauzkala ez duelako ordaindu eguneko arretarako landa zentroaren prezio publikoa, eskatzaileari eskatuko zaio kasuan kasuko jakinarazpena jaso eta 30 egun naturaleko epean ordain ditzala zor dituen kopuruak edo organo eskumendunari eska diezaiola zatikatu diezaiola zorra, artikuluko honetako 1. eta 2. apartatuetan jasotzen den bezala.

Pertsonak ez badu errekurritzen zorra ordaintzeko, hurrengo zerbitzuan hasteko eskaeran atzera egin duela joko da, eta beste izapiderik egin gabe artxibatuko da, horretarako eskumena duen organoak ebazpena eman ondoren. Edonola ere, pertsonak zorra ordaindu ahal izango du geroago, bai eta zerbitzuan hasteko beste prozedura bat abiarazi ere.

Lehenengo xedapen gehigarria. Ezkontzaren antzeko harremana

1. Izatezko bikoteei buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak zehazten dituen bikoteak ezkontzaren antzeko harremanaren bitartez lotuta daudela joko da zerga ordenantza honen ondorioetarako. Lege hori autonomia erkidegoan dago indarrean.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiria, edo, hala badagokio, udal erregistroaren ziurtagiria aurkeztuta ziurtatuko da harreman hori, lege horren 3. artikuluan araututako baldintzetan.

Bigarren xedapen gehigarria. Aparteko egoerak

1. Eguneko arretarako landa zentroaren erabiltzaileen egoera sozioekonomikoa berezia izan litekeela jakinik, organo eskumendunak zerga ordenantza honetan jasotako hobari partzialak edo hobari osoak zehaztu ahal izango ditu, edo, hala badagokio, areagotu ahal izango ditu zerga ordenantza honetan xedatutako hobarien zenbatekoak, salbuetsitako zenbatekoak eta erabilera libreko zenbatekoak.

2. 6. artikuluan aipatutako arrazoiez bestelako arrazoientatik zerbitzuen erabilera eteten bada, organo eskumendunak prezio publikoaren salbuespen partzialak onetsi ahal izango ditu plaza gordetzeko.

Azken xedapena. Indarrean jartzea

1. Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2. Zerga ordenantza hau aplikatuko zaie eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua data horretan edo ondoren eskuratzen duten pertsonari.

I. ERANSKINA

Prezio publikoaren zenbatekoa

1. tarifa. Eguneko arretarako landa zentroak	
1.1. tarifa. Arreta pertsonala emateko zerbitzua	119,73 euro hilean
Zerbitzu osagarriak	
1.2. tarifa. Otordu zerbitzua	81,60 euro hilean
1.3. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua	7,54 euro garbiketako
1.4. tarifa. Bainu geriatrikoko zerbitzua	4,68 euro bainuko

1.1 edo 1.2 tarifa aplikatzen zaien zerbitzuak egunero erabiltzen ez badira, prezioa erabilera-ren proportziokoa izango da.

II. ERANSKINA

Ahalmen ekonomikoa nahikoa den zehaztea

I. eranskineko prezio publikoak indarrean dauden bitartean, zerbitzu baten erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa nahikotzat joko da eranskin honetan ezarritako kasuetan.

1. Hobariak zehazteko 5.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela joko da ahalmen ekonomikoa, III. tituluaren I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kalkulaturik, 1.500,00 euro/hil kopurua bezain handia edo hura baino handiagoa bada.

2. Era berean, behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela joko da pertsonaren ondare zenbakarria 50.000,00 eurokoa edo hori baino handiagoa bada, nahiz eta III. tituluaren I. kapituluaren arabera kalkulaturiko ahalmen ekonomikoa aurreko tauletan ezarri diren mugak baino txikiagoa izan.

III. ERANSKINA

Hobari aplikagarriak

I. eranskinean ezarritako prezio publikoen indarraldian, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa ez duten pertsonen honako hobari hauek aplikatuko zaizkie, zerga ordenantza honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz:

Eguneko arreta eskaintzen duten landa eremuko zentroetan, arreta pertsonaleko zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko banakako prezioa kalkulatzeko, honako taula honetan ageri diren hileko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalmen ekonomikoa oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROAK)	GEHIENEZ (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ ERE	EHUNEKOA
Gutxienez, 0,00	0	0	500,00	3,0
600,00	500,00	17,35	100,00	5,0
700,00	600,00	22,35	100,00	7,0
800,00	700,00	29,35	100,00	10,0
900,00	800,00	39,35	100,00	10,0
1.000,00	900,00	49,35	100,00	11,0
1.100,00	1.000,00	60,35	100,00	11,0
1.200,00	1.100,00	71,35	100,00	12,0
1.300,00	1.200,00	83,35	100,00	12,0
1.400,00	1.300,00	95,35	100,00	12,0
1.500,00	1.400,00	107,35	100,00	12,38
1.500,00 euro baino gehiago		Gehieneko tarifa		119,73 euro

IV. ERANSKINA

HITZARMENA, MOREDA ARABAKO UDALAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKOA, EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROAREN ZERBITZUAREN ESKUMENAK ESKUORDETZEKOA ETA EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROAREN GARRAIO EGOKITUAREN ZERBITZUAREN KUDEAKETA ESLEITZEKOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea ongizate estatuaren oinarria da, eta bertan arautzen da botere publikoek eskubidearen titular diren pertsona guztiei prestazioak eta gizarte zerbitzuak jasotzeko aukera bermatu behar die-tela, legean bertan eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan ezarritako baldintzetan, Arabako Foru Aldundiak eta lurralde historikoko udalek Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren esparruan 2016ko uztailaren 22an berretsitako Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen maparen arabera.

12/2008 Legearen 22. artikulua jasotzen du eguneko arretarako zerbitzua udalaren eskumenekoa dela, eta ahalmen ugari ematen dizkio, baina lurralde historikoko udalerrri gehienek ez dituzte zerbitzu hori emateko behar diren azpiegiturak, tamaina eta biztanleria kopuru txikia dutelako.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 31. artikulua arabera, aldundiek bermatu egin behar dute udalen eskumenekoak diren zerbitzuak lurralde guztian osorik eta egoki ematen direla, eta testu beraren 36. artikuluari jarraikiz, aldundiek udal zerbitzuei laguntza eta lankidetzak juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa emateko eginkizuna dute, besteak beste. Hori dela eta, komenigarria da Arabako Foru Aldundiak udal eskumeneko zerbitzu hori ematen parte hartzea.

Horregatik, lurralde osoan zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko mekanismoak ezartze aldera, komenigarria da lankidetzak esparru bat antolatzea Arabako Foru Aldundiaren eta hala erabakitzen duten udalen artean, udal eskumeneko eginkizun jakin batzuk gauzatzeko.

Lankidetzak horrek administrazioen arteko lankidetzak, kooperazio eta laguntza printzipioen legezko oinarria du, eta besteak beste hauetan jasotzen dira horiek: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. artikulua eta hurrengoak eta hitzarmen honetan gauzatzeko gizarke zerbitzuen legearen 43. artikuluan eta hurrengoetan.

Udalek eguneko arretarako zerbitzuari dagokionez dituzten eginkizunen izaera desberdina dela eta, beharrezko da lehen aipatutako 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengoaren arabera izenpetutako hitzarmen honetan jasotzea bai lankidetzak formula bat, gizarke prestazioarekin lotutako eta prezio publikoa biltzearekin lotutako administrazio prozedurak izapidetzeari eta garatzeari buruzko eginkizunen eskumena eskuordetzeko, bai eguneko arretarako landa zentroaren garraio egokituaren zerbitzuaren kudeaketa esleipena.

Kontuan hartuz foru lankidetzaren oinarrietako bat dela zerbitzuaren kalitatea eta intentsitatea Arabako udalerrri guztietan antzekoa izatea sustatzea, beharrezkoa da zerbitzua eta prezio publikoak arautzen dituen araubidea berdina izatea hitzarmena sinatzen duten udalerrri guztientzat eta, gainera, eskumenen eskuordetzak erraztea; hori dela eta, zerbitzuaren eta haren prezio publikoaren araubideak erantsi dira hitzarmenaren eranskin gisa.

Hitzarmen hau atxikitzen zaizkion lurralde historikoko udalerrriei aplikatuko zaie, honako hauetan adierazitako baldintzetan:

KLAUSULAK

Lehenengoa. Xedea

1.1. Hitzarmen honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren esku uztea Moreda Arabako Udalen eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren arloko eskumenak, eta onuradunak eguneko arretarako landa zentrorako joateko garraio egokituaren zerbitzua kudeatzeko esleipena ematea.

1.2. Hitzarmenetik kanpo geratuko dira eguneko arretarako landa zentroko zerbitzuaren informazioari, balorazioari, diagnostikoari eta orientazioari buruzko udal eginkizun eta eskumen guztiak, oinarritzko gizarke zerbitzuetakoak direnez, zuzenean udalerriek eta/edo kuadrillek emango dituztelako. Era berean, oinarritzko gizarke zerbitzu horiek erreferentziako profesional bat esleituko dute. Profesional horrek bere gain hartuko du kasuaren koordinazioa; Banakako Arreta Programa egingo du, edo, hala badagokio, Arreta Pertsonalizatuko Plana, pertsona edo familia erabiltzailearen parte hartzearekin; esku hartzearen jarraipena egingo du, Gizarke Zerbitzuen Euskal Sistema osoarekin koordinatuta, eta, interesdunei orientazioa eta laguntza emango die beren eskaera formalizatzeke eta kasuan kasuko espedienteak bideratzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteke.

Bigarrena. Eguneko arretarako landa zentroko zerbitzuaren araubidea eta hitzarmenaren eraginkortasuna

2.1. Arabako Foru Aldundiak eta Moreda Arabako Udalak hitzarmen hau sinatzeko konpromisoa hartu dute, eguneko arretarako landa zentroko zerbitzua arautzen duen udal arautegia eta dagokion zerga ordenantza onetsi ondoren. Araudi horiek hitzarmen honi erantsi zaizkio, I. eta II. eranskin gisa, hurrenez hurren.

2.2. Araudi hori onestea eta indarrean egotea ezinbestekoa da hitzarmen hau eraginkorra izan dadin eta indarrean egon dadin.

Hirugarrena. Eskumenak lagatzearen irismena

3.1. Moreda Arabako Udalak Arabako Foru Aldundiari lagako dio honako eskumenak egikaritzea eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren alorrean:

a) Oinarrizko gizarte zerbitzuek izapidetutako espediente guztiak baloratzea, horretarako ezarritako Balorazio eta Orientazio Batzorde Teknikoaren bidez. Adostasunik ez badago, espedientea bideratu duen udalak/kuadrillak izendatutako pertsona sartu ahal izango da.

b) Proposamen teknikoa egiten denetik (udaletako gizarte zerbitzuek egiten dutena) hori erabat amaitu arte izapidetzea zerbitzu hori ematearekin zerikusia duten administrazio prozedurak, horretarako behar diren ebazpenak emanez, eta, bereziki, prestazio hori jasotzeko eskubidea aitortzeari, eskuratzeari, eteteari eta/edo azkentzeari buruzkoak, eguneko arretarako landa zentroko zerbitzua arautzen duen udal arautegian ezarritakoaren arabera.

c) Zerga ordenantzan ezartzen diren zerbitzuen prestazioaren prezio publikoak kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, toki ogasunak arautzen dituen araudian eta, osagarri gisa, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera.

d) Eguneko arretarako landa zentroko zerbitzu alorrean zehapen ahalmena egikaritzea, eta legez egin beharreko ikuskaritzak eta egiaztaketak egitea.

e) Lagatutako eskumenak egikaritzuz emandako egintzen aurka jarritako administrazio errekursoak ebaztea.

3.2. Arabako Foru Aldundiari dagokio eskuordetze bidezko eskumen hori egikaritzea, indarrean dagoen araudiaren arabera, eta bereziki zerbitzuaren araubidearen eta bigarren klausulan aipatutako prezioaren arabera.

Laugarrena. Eguneko arretarako landa zentroko garraio egokituaren zerbitzua ematearen kudeaketa esleipenaren irismena

4.1 Moreda Arabako Udalak Arabako Foru Aldundiaren esku utzi du eguneko arretarako landa zentroko garraio egokituaren zerbitzua, eta aldundiak onetsi egin du.

4.2 Arabako Foru Aldundiak garraio egokituko zerbitzua behar bezala emateko behar diren jarraibideak eta aplikazio irizpideak eman ahal izango ditu.

4.3. Kudeaketa esleipen hori Arabako Foru Aldundiak gauzatu ahal izango du zuzenean edo zeharka, kontratazioa edo hitzarmena legez ezarritako moduan eginez, eta guztizko iraupenak ezingo du hitzarmen honen indarraldia gainditu.

Bosgarrena. Gobernu eta Koordinazio Batzordea

5.1. Gobernu eta Koordinazio Batzordea sortu da, hitzarmen honetan jasotako hizpaketak betetzen direla jarraitzeko, kontrolatzeko eta sustatzeko eta hitzarmena interpretatzeko.

Hauek osatuko dute Gobernu eta Koordinazio Batzordea:

Udaleko sei (6) ordezkari, eremu hauetako bakoitzeko bi ordezkari egongo direlarik: Aiara, ipar-ekialdeko Araba eta hegoaldeko Araba.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko hiru (3) ordezkari.

5.2. Gobernu eta Koordinazio Batzordeari dagokio antolamendu eta funtzionamendu arautegi propioa sortzea.

5.3. Hitzarmen honetan eta bere antolakuntza eta funtzionamendu araubidean aurreikusita ez dagoen guztirako, Gobernu eta Koordinazio Batzordearen funtzionamendua Sektore Publiko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritako kide anitzeko organoen funtzionamendu arauen arabera jokatu da.

Seigarrena. Gobernu eta Koordinazio Batzordearen eginkizunak

6.1. Hauek dira Gobernu eta Koordinazio Batzordearen eginkizunak:

a. Hitzarmen hau planifikatzea, koordinatzea, jarraitzea, kontrolatzea, txostena egitea eta interpretatzea.

b. Hitzarmen honetan aldaketen edo berrikuntzen berri ematea.

c. Hitzarmen honetan berariaz jasota dauden eskuduntzak egikaritzea.

6.2. Gobernu eta Koordinazio Batzordeak urtero jasoko du hauei buruzko informazioa:

a. Hitzarmenaren egikaritze egoera, baita ekitaldi bakoitzeko gorabeherak ere.

b. Erakunde sinatzaileek egin ditzaketen proposamenak, kexak edo iradokizunak.

6.3. Urtero Arabako Politika Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaian aurkeztu beharko da Arabako Lurralde Historikoko eguneko arretarako landa zentroko jarduerari buruzko memoria, lurralde horretako udalekin eguneko arretarako landa zentroko zerbitzua emateko sinatutako hitzarmenen esparruan.

Zazpigarrena. Eskuordeturiko eskumenak eta kudeaketa esleipena egikaritzea

7.1. Eskumenak eskuordetzean ez da titulartasuna lagako, eta hala, une oro, titulartasuna udalarena izango da, eta, beraz, egikaritzea bakarrik eskuordetuko da.

7.2. Eskuordetutako eskumenen egikaritzearen eta esleitutako zerbitzuaren garapenaren berri emango dio Arabako Foru Aldundiak Gobernu eta Koordinazio Batzordeari, urtean behin behintzat.

7.3. Moredako Udalak edonoiz eskatu ahal izango du Arabako Foru Aldundiari eskuordeturiko eskumenak egikaritzeari buruzko informazioa, baita esleitutako zerbitzuaren prestazioari buruzkoa ere. Horretarako, idazkia bidali beharko dio Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiken Sailari. Arabako Foru Aldundiak eskatutako informazioa bidali beharko du gehienez ere eskaria Arabako Foru Aldundian sartu eta erregistro egun horretatik aurrera zenbatzen hasita hogeitun egun baliouduneko epean.

Zortzigarrena. Ekonomia eta finantza araubidea. Aldeen konpromisoak

8.1. Moreda Arabako Udalaren konpromisoak.

a) Moreda Arabako Udalak konpromisoa hartzen du eguneko arretarako landa zentroko zerbitzua osorik emateagatiko gastuetarako ekarpena egiteko: Moreda Arabako Udalak zerbitzu horretan okupatutako plaza bakoitzaren ehuneko 20.

8.2. Arabako Foru Aldundiaren konpromisoak.

Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du eguneko arretarako landa zentroko zerbitzua osorik emateagatiko gastuetarako ekarpena egiteko: kostu osoaren ehuneko 80 eta garraio egokitua emateagatiko gastuen ehuneko 100.

8.3 Urtero likidatuko dira aurreko puntuetan hartutako konpromisoak.

Bederatzigarrena. Araubide juridikoa

Hitzarmen honek administrazio izaera dauka. Hitzarmena eta hura egikaritzean emandako egintzak eta erabakiak edo hitzarmenetik eratorritakoak berrikustea administrazioarekiko auzien ordenari dagokio.

Hamargarrena. Iraupena

10.1 Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du eta 2021eko urtarrilaren 1ean sartu da indarrean. Hitzarmenaren indarraldia eta eraginkortasuna bigarren klausulan aurreikusitakoaren arabera izango dira.

10.2 Alderdiak aho batez hala adosten badute, hitzarmena amaitzean luzatu egin ahal izango da, hasierako iraupenaren iraupen bererako. Aldeetako batek hitzarmena ez luzatzeko asmoa badu, hitzarmena bukatu baino, gutxienez, sei hilabete lehenago jakinarazi beharko dio besteari asmo hori.

10.3. Udal batek, edozein arrazoi dela-eta hitzarmen hau ez luzatzea erabakitzen baldin badu, ez da hitzarmena deuseztatuko, oinarritzko eremuko gainerako udalei dagokienez.

Hamaikagarrena. Hitzarmena deuseztatzeko arrazoiak

11.1. Hauek izango dira hitzarmena deuseztatzeko arrazoiak:

a. Alderdien arteko erabakia.

b. Alderdietako edozeinek hitzarmena salatzea, ondorioak izan behar dituen eguna baino gutxienez sei hilabete lehenago.

c. Gobernu eta Koordinazio Batzordearekin ados ez egotea hitzarmen honetako oinarritzko klausulak interpretatzei dagokionez.

d. Oinarritzko betebeharrak ez betetzea. Deuseztatze arrazoiak aplikatzeko, hitzarmena deuseztatu nahi duen erakundeak aurretiaz Gobernu eta Koordinazio Batzordeari jakinarazi beharko dio deuseztatze arrazoiak eta horretarako asmoa duela. Jakinarazpen hori egin ondoren, batzordeari deialdia egingo zaio eta batzordea gehienez ere hamabost egun balioduneko epean bildu beharko da, aurretiaz beste alderdiari izapidetzea eginda, ebazpenaren arrazoiari buruzko txostena emateko. Batzordearen txostena eman ondoren, erakunde interesatuak dagokion ebazpena emango du.

e. Hori betetzeko gerora sortutako ezintasuna, eta halakotzat hartuko da, besteak beste, Udalak onetsi edo aldatzea eguneko arretarako landa zentroko zerbitzuari buruzko araudi bat, aurrez adostutakoa ez dena, hitzarmen honen bigarren klausulan ezarritako baldintzetan eta salbuespenekin.

f. Indarraldiko eta luzapeneko gehienezko epea igarotzea.

11.2 Hitzarmena ebazten edo iraungitzen denean likidazioa hasiko da, eta hala, eraginpeko udalari aurretiazko entzunaldia eman ondoren, Arabako Foru Aldundiak egingo du eta Gobernu eta Koordinazio Batzordeak onetsiko du.

11.3. Moreda Arabako Udalak alde bakarretik hitzarmena deuseztatzea ebazten badu, Arabako Foru Aldundiak hitzarmenaren jasotakoa bete ez duelako, Arabako Foru Aldundiak kalte-galeren ordaina eman beharko dio nahitaez.

Hamabigarrena. Datuen babesa

Bi alderdiak adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesaren eta datu horien zirkulazio askearen inguruko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datuen Babesteko Erregelamendu Orokorra onesten duen 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du), bai eta une bakoitzean aplikatu beharreko datuen babesari buruzko gainerako araudia ere, eta konpromisoa hartzen dute araudi horietan aurreikusitako eskakizunak betetzeko, hitzarmen honen inguruko pertsona fisikoetatik lortutako datuei dagokienez.

Hamahirugarrena. Hitzarmenera atxikitze prozedura

Hitzarmen hau sinatzeko udalbatzaren erabakia beharko da. Erabaki horretan, udalbatzak hitzarmena sinatzea onetsi beharko du eta guztiz onetsi klausula guztiak, eta, gainera, hitzarmen honetako bigarren klausulan aurreikusitako araubidea onetsi beharko du aurretiaz.

Moreda Araba, 2021eko irailaren 17a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL BUJANDA FERNÁNDEZ